**BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN BATZORDE IREKIAREN BILERA**

***REUNIÓN DE LA COMISIÓN ABIERTA DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN***

| | |
|---|---|
| **Data**: 2013ko apirilaren 17 | ***Fecha:*** *17 de abril de 2013* |
| Hasiera ordua: 17:00<br>Bukaera ordua: 19:00<br>Lekua: Baztango Udala | *Hora de inicio: 17:00*<br>*Hora de finalización: 19:00*<br>*Lugar: Ayuntamiento de Baztan* |
| Bertaratutakoak:<br>Garbiñe Elizegi Narbarte (Alkatea), Katrin Kanpo, Idoia Gillenea, Ainara Gaztelu eta Irune Gaston Ripa (Berdintasun teknikaria).<br><br>Bertaratuko ez direnak:<br>Karlos Beristain, Nora Salbotx, Hita Sagaseta eta Maite Oteiza.<br><br>Gai –zerrenda:<br><br>1. Aurreko Batzordeko aktaren onartzea (2013/02/13).<br>2. Martxoak 8 ebaluaketa.<br>3. Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko dirulaguntzaren berri ematea.<br>4. ATENPRO sistemaren berri ematea (genero indarkeria).<br>5. Berdintasun Diagnostikoaren egoeraren berri ematea: inkesten banaketa.<br>6. Batzordekide baten proposamena ezagutu.<br>7. Bertzerik. | *Asistentes:*<br>*Garbiñe Elizegi Narbarte (Alkatea), Katrin Kanpo, Idoia Gillenea,, Ainara Gaztelu e Irune Gaston Ripa (Berdintasun Teknikaria).*<br><br>*No han asistido:*<br>*Karlos Beristain, Nora Salbotx, Hita Sagaseta y Maite Oteiza.*<br><br>*Orden del día:*<br><br>*1.- Aprobación del acta anterior (13/02/2013).*<br>*2.- Evaluación sobre el 8 de marzo.*<br>*3.- Informar de las ayudas del Departamento de Salud del Gobierno de Navarra.*<br>*4.- Informar sobre el sistema ATENPRO (violencia de género).*<br>*5.- Informar sobre el estado del Diagnóstico de Igualdad: difusión de la encuesta.*<br>*6.- Conocer la propuesta de una compañera de la comisión.*<br>*7.- Otros.* |
| Lehendabiziko puntua: | *Primer punto:* |
| Aurreko bileraren akta aho batez onartzen da. | *Se aprueba el acta de la anterior sesión por unanimidad.* |

| | |
|---|---|
| <u>Bigarren puntua:</u> | <u>*Segundo punto:*</u> |
| Martxoak 8ko ikastaroko balorazioa oso ona izan dela komentatzen da, bai ahoz jasotako iritziengatik, bai ikastaroan jasotako ebaluazio orriengatik.<br>Berriz ere, formaziorekin segitzeko beharra eta eskakizuna jasotzen dugu ebaluaketa-orrietan.<br><br>Elkarteratze bateratuan azken orduko ezusteren bat suertatu zen, horiek komentatzen dira eta heldu den urterako nola eginen den aztertzen da. Hala ere, balorazio positiboa egiten da elkarteratzearen inguruan. | *Se comenta que la valoración del curso del 8 de marzo ha sido muy positiva, por las opiniones recogidas de palabra así como por las hojas de evaluación recogidas en el propio curso.*<br>*En las evaluaciones recogemos opiniones que siguen demandando más formación.*<br><br>*En la concentración conjunta hubo algún contratiempo de última hora; se han comentado y se ha estudiado cómo se hará el año que viene.*<br>*Aun así, se hace una valoración positiva sobre la concentración.* |
| <u>Hirugarren puntua:</u> | <u>*Tercer punto:*</u> |
| Deialdiaren berri ematen da, berdintasun arlotik aurkeztu den proiektuaren berri ere ematen da. | *Se informa sobre la convocatoria, y también se da cuenta del proyecto que se ha presentado desde el Servicio de Igualdad.* |
| <u>Laugarren puntua:</u> | <u>*Cuarto punto:*</u> |
| ATENPRO sistema, genero indarkeria jasan duten emakumeendako zerbitzua, azaltzen du teknikariak.<br><br>Udala sistema honetan atxikitzeko aukera baloratzen da, zenbait kontsulta eginen ditu teknikariak eta ondoren, erabakiko da.<br>Toki entitateak programan sartzea erabakiko balu, osoko bilkuran erabaki beharko litzateke. | *La técnica explica el sistema ATENPRO, servicio para las mujeres que han sufrido malos tratos.*<br><br>*Se valora la opción de que el Ayuntamiento se adhiera a este sistema, la técnica hará algunas consultas, y luego se decidirá. Necesitaría pasarse por pleno si es que la entidad decide adherirse al programa.* |
| <u>Bosgarren puntua:</u> | <u>*Quinto punto:*</u> |
| Diagnostikoaren egoeraren berri ematen da, eguneko lanak azaltzen dira: datuen bilketa, elkarrizketa eta eztabaida taldetarako taularen osatzea (metodologia kualitatiboa).<br><br>Inkesten banaketari buruz aritzen gara, baita banatzeko modu egokiena | *Se informa sobre la situación del diagnóstico, se explican los trabajos a día de hoy: recopilación de datos, y las tablas de grupos de discusión y entrevistas (metodología cualitativa).*<br><br>*Se habla sobre la difusión de las encuestas, y también se valora cuál* |

| | |
|---|---|
| zein den pentsatzen ere.<br><br>Etxez etxeko banaketa eta herriz herrikoa nola egin adosten da.<br><br>Buzoiak non paratu adosten da, herriz herri.<br><br>Inkestaren edukiak aztertzen dira eta bertaratutakoen artean ekarpenak jasotzen dira. Adosten da euskara zerbitzuari pasatzea, euskara egokia eta zuzena erabili den jakiteko eta horrela ez bada, moldatzeko. | *sería la mejor forma de repartirla.*<br><br>*Se acuerda cómo hacer el reparto casa por casa y pueblo por pueblo.*<br><br>*Se acuerda dónde poner los buzones, pueblo por pueblo.*<br><br>*Se estudian los contenidos de las encuestas y se reciben las aportaciones de todas las personas que se han acercado. Se acuerda pasarla al servicio de euskera, para comprobar que sea correcta y adecuada, y en caso de que no sea así corregirla.* |
| Seigarren puntua: | *Sexto punto:* |
| Batzordekidea ez da bertaratu, beraz, erabakitzen da hurrengo batzorde batean proposamenak jasotzea. | *No ha venido la compañera de la comisión, por lo que se decide recoger propuestas en una próxima comisión.* |
| Zazpigarren puntua: | *Séptimo punto:* |
| Kontrabandisten eskulturen gaia eta eguneko egoera komentatzen da.<br><br>Mutildantzen inguruan ere solasten da.<br><br>Genero indarkeriari buruz ere solasten da. Adosten da, behin Plana eginda, gai honi eustea. Zeozer egitearen beharra aipatzen da. | *Se comenta el tema de las esculturas de los contrabandistas a día de hoy.*<br><br>*También se habla sobre las mutildantzas.*<br><br>*También se habla sobre la violencia de género. Se decide, una vez hecho el Plan, retomar el tema y trabajarlo. Se comenta que hay necesidad de hacer algo.* |

Elizondon, 2013ko apirilaren 17an.